

Whoostock

Malen:

Gogoratzen duzu Antton? Ni gogoratuaz bakarrik umel umel eginda nagoelako!

Gogoratzen 69ko abuztuak 15etik 18rako paradisu hura?! Orduz geroztik zurekiko egiteetatik kanpo, izate berotik at, ezagutu izan dudan nirvana bakarra; Whoostock. Giltzarraporik gabe ate guztiak ireki genitueneko jaialdia, burutik hasita hatz puntetaraino. Jaialdi erdi inprobisatua; jaialdi mundiala. Dena eman genuen hura, gure orubeetatik landa, Sullivanen; Estatu Batuetan. Bethel herrixkaren kanpoaldeko borda hartan, guk hartu genuelarik hiru egun horietan bertako animalien papera. Hori bai, animalia baketsuak; hippyak. 'Bethelkada' ederra gurea!!

Gogoratzen duzu, musika, bitsa eta ke artean, besteak beste, hitzak asmatzen genituenekoa, edo hobeto esanda, hitzak jartzen genienekoa gure zerei, artean, genekizkien gutxiak esaterik ere ez genituelako gure aberri santuan?!

Odolostia deitzen genion Kevini, biguntasun hura gogortzerik ez zuelako gizajoak bere herdoilean. *Txitxarrillo pelagikoa* Peterri, lotsa gabe paseatzen zuen arren berori gure ardura gabetasunaren pare, zein, *kakamarratua* Frediri, auskalo bestelako ze kontugatik ernegatuta eman baitzituen egunak ipurterreak.

Nola ez, gogora datozkit halaber, kontzertu eta kontzertu artekoak gustukoena egiten ematen zituen Yoli 'makil-dantza' edo, bere soinekoengatik -guk ere pinta ederrik ez geneukan arren- *afrusa* ezizena jarri genion Vivian, irri eta irri artean. *Sarasate baino poperoagoa* esaten genion bezala Markusi, 'rollo' onean, albotik pasa bakoitzean 'pop'a eta popa alderatu aldera aldarte ezin atseginagoan, kar kar. Ze ona! Beraiek gurekikoak lain, ze onak!

Pertsona bakoitza zen usain, zapora eta kolore iturri. Sudur makatz eta sagar masail; freskoak. Denontzat geneukan, denak zeukaten eta denok ginen! *Egitorgasmo* musikatu bat zen hura, orduko gerlen bizkarrera eta bakearen izenean. *Mokoroa* biltzeaz gain, zein, bateko eta besteko *pipatuekin*, libre jotzeko esparrua. Musikaz gain, adarrak eta abarrak noski. *Gainkatu* esaten genion guk gure eginahalen deskantsuetan, ezinbestean hainbesteri so.

Gordin ikusten ditut denboran iragan egun haiek baina, bizitza eredu berri bat proposatzen genbiltzan etsenpluaz, Vietnameko bonba hotsak arrosazko musuengatik ordezkatzan. Peace and love!! Graffiti baten geratu zen arren gure mundu-ametsa.

Eta ze ona zinen zu! Ze ona larrutan!! Horretan ere!!! Eguneroko loaldi txiki haietatik *hamabiak jota* esnatu arren -tente demonio- zein delikatua pausuetan. Zurekin plazer hutsa zen etengabe *apotan egitea*. Gustu mugagabea! Delirio amaigabea! Hasteko gogoratu nola musika jarri beharrik ez zegoen sexualki jarriak izateko, han minutu hutsik ez baitzen oholtzan zein oholtzaren beso zabaletan. Musika zen dena,

musika bere adiera ezberdinetan. Aldian aldian tokatzen zenaren notetan igartzen nituen nik zure lehen laztanak, lehen ukituak; lehen musuak.

Janis Joplin zein Johnny Winter, berdin zen zein, erruleta hartan. Minutuka gauzatzen zen tetris hartan. Suertatzen zena suertatzen zela ongi etorriak ziren denak, zetozenean zetozela, zirrien pare.

Eskutik helduta abiatzen ginen larretik *auskalora*. Auskalo jakinetara nolana ere. Eskutik jaikitzen ginen gure itsu puntuan, jende motroilo haren artean galtzeko, norbera aurkitu aldera.

Noiz konturatuko gara, ez garela bizi arnasa hartu dezakegulako,
arnas barik uzten gaituzten momentuengatik baizik!

Undergroundaren musikan bezain munduan -mundu bat errebindikatzen genuelako- une oro bustitzen ginen pixkanaka biok. Busti, euri zein eguzki! Batez ere gehiago itxaron ezin genuenetako lokatz jokoetan; egosaldi haietan. 'Herrikoiak' egin ziren arren, bakarrik geundenaren irudipenetan egiten genituenak. Egiten zituztenak, egiten zenituenak, egiten nituenak... eta ordura arte asmatu gabeko aditzenak!

Bai pitxin bai, han, zurrunbilotik irtenda abiatzen ginen laku haren eraztunera. Epizentroaren gibelera, begi-bistan geneukan tontor biren arteko 'zisneen laku' ra, maitale andanak jarri zion izenari men. Bertan egon zenak baino ez daki zein eszenatoki natural pribilegiatuan geunden, munduaren uzkiezen bazen ere. Dena zen irudigai!

Hura gozamina, bainuetxe batean lez, erdigunetik gurera aireak orraztutako uhinen bidez heltzen zen musikaz plisti-plasta. Usteei baino gogoari bide ematen, ginenaren lasaitasun eta zuhurtzia osoz. Gogoan dut oraindik "no empuje al rio" bikote andaluziar hark errepikatzen zuen esaldi esanguratsu hura, kar kar. Eta horrela zen, ez geneukan inongo presio ez betebeharririk gure azentu ezberdinetan, gogoaren neurrira eramaten uztea baino ez. Uraren gainean dantza egin! Dena zen posible, egun fosildua egongo den metaforaren bat kasu.

Zeri deituko ote diote gaur egun erotika?! Gure begiradak bederen zentzumen guztiak biltzen zituen, sexuaren berezkoetatik at. Irudia orokortua daukat.

Lakua borobiltzen zuen basatzetan irristatzen ginen lehenengo, ume jolasa balitz. Lehen errebolten ostean, gorputzaren arteko talka irristagarrien segidan, landare esentziadun ukitu zoragarri horren ondoren, nire bizkarrak ipurdiarekin bat egiten duen bihurgunean esertzea zenuen gogoko, masaje bidea hasteko. Jarraitzeko hobeto esanda, begiak itxita zauden arren jada bihotza, esan lez, begiak irekitzen zenituen momentutik baitzen niretzako dena hozkirri. Kurbatura horretatik irteerarik ez lukeen biribilgune bat egingo zenukeela esaten zenidan atzamar puntekin -marra ez jarraituen segida batez- bidea markatu ahala, ni ahuspez jarrita hitzen ekintzen aparretan lurruntzen nintzelarik. Buztina gure gorputzetan lez.

Azkenean, batzuk bederen, ikasi genuen lotsa eta geben gabe disfrutatzen. Akaso, zarpitan erori eta zortzitan altxatu izan garenak. Eskiatzeaz nekatu ginenak. Leku batera joateko gorputza bestera balaztatzeaz alegia. Xedera heltzeko abiapuntuaz! Zuk badakizu.

Uste dut whoostock bertara iritsi ginen gehienok, oroimenean graffitatu genuela, emakume txintxoak zerura badoaz, gaiztoak -bere zentzu askeenean- edozein lekura hel gaitzkeela. Erratz edo erratzik gabe, hegan egin. Edo gezurra da ba txintxoak beti ez dela justua?! Eta gaiztoa askotan badela?!

Eta halaxe, deabru-angeru portatzen ginen gure ´komunitatean´. Edonon ondo pasatzen genuelarik eta, edozein txokori zuku ateratzen genion arren, laku inguru hura zen gure ´egon sex-gela´. Gure nekazal bainuetxe pribatuko gela-ilun sakratua. Jauregi natural hartako ilargi betearen bainuontzia. Dena zegoen argi gure paradisuaren suan! Buztinaren gozamenera eta Joan Baez zoliaren gozora gogoratzen ari nintzaizuna kasu. Hura larru-aldia!!

Biribilgunean jira nahikoak egindakoan, ipurmamiak gori-gori, alua blai-blai, katamar jarri nintzenekoa, eustearen ezinean, zuk belauniko, dauden eta ez dauden kanalak bilatu zenitzan ene Veneziar gondolari hori. Baita bilatu ere, modu ezin gozagarriagoan ferekatuak izan zirenak gainera. Baez beraren akorde finekin hasi eta The Whoren gure ereserkiaz txilio baten bukatu arte. Hura gogoangarriak izan zitzaizkidan bizpahirutatik lehena. Jarraian, bainua lakuan, *irri-zigarroa* partekatu eta arrainontzi nagusira bueltatzeko, musika zentzumenetatik baino belarrietatik sartzera. Plazerak ez zuen mugarik gurean, irudimenak bezala.

Irakasle ona, ikus araztea erakustea baino hobea zela zioen hura. Imajinatzea ikustea baino. Iradokitzea biluztea baino. Bidea helmuga baino! Guk denarekin gozatzen genuen ordea: bidez, helmugaz... jausgailu batzuk ginen; irekiak ginen heinean balio genuen. Izan ere ´zer´ baino ´nola´n dago kontua. Sexuak berak bere indar eta magia guztia galtzen du esplizitua denean; mekanikoa. Hanpatua bihurtzen denean. Osagaiekin nahastean dago beronen sekretua: emozioak, fantasiak, aurpegierak, musika, dantza...olioa eta ardoa. Zapore guztiak.

Ez dut ukatzen *astapulloren* batzuk ere izango zirela hainbesteren artean. Umeltasun likits hartan irrikarik gobernatu ezingo zuenik! Hura baina, orokorrean eta gutxien gutxienean, irrintzi bakezale bat zen belaunaldi berri baten aldarri librea zen neurrian.

Auskalo bat zen bezala edozein momentu han, *hamakagarren urkamendian* bazen ere, gure zeluloidean. Auskalo horrek, momentua bera bizitzearen magia zuen osagarri. Ikusiak bezain ez-ikusiak ikustekoak ziren e?! Entsalada errusiar hark, barazki menestra hark, gustu guztiak zituen beregain. Nik zurekin ordea, horiek eta hortik gorakoak egiten nituen pirata!

Hizki-zopa baten antza hartzen nion gureari ordea. Hitzekin jolasean hasten ginen bestelako doinuekin belarriak gozatu aurretik, aurrekari gisa edo. Mintzera heltzen ziren hitzak ere botatzen genituen arren noizean noiz, bakoitza bere izatean fidela izan aldera. Hitzek gezurtatu edo egiaztatzen gintuzten neurrian. Hitz-arma eta hitz-lore! Baina ze gozoa zen hizki-zoparen antzera norbera desegin ahala bestea berotzen zuela sentitzea. Bestea desegin ahala norbera asetzea. Hustu ahala elikatzea. Ondoren berriz, hitz gabe geratzeko gure plazer jokoen talaian.

Nola esan maite, zure katean soilik naizela aske?! Trenak, diotenetik aparte, behin baino gehiagotan pasatzen dira, norbera da bestelakorik hartu ez duena, hartu genuen bakar hark baikaramatza nahi dugun bidean. Orbainak izango ditugu baina minik ez!

“Richie Havens zegoen jotzen hamaseitik hamazazpirako hurrengo gau hartan, eta nire ipurdi saltariena zure hanka-tartean minututan igurtzi ondoren, igurzten igurzten, lakura heltzeko denborarik ere ez zigun eman. Atzetik bularrak estutzen zenizkidan eta aleka gonapetik eskua luzatu umeltasunetara; titiburuak egiten zutelarik gorago orduan. 3 dimentsioak asmatu gabeak ziren baina!!!

Zure besoek nire sama estutu ahala, belar ondoko urruma eta hozkaden ondotik, burua atzerantz bota eta aho gora jan genion ahoa elkarri; mingaina mingainaren kontra. Pultsu amoretsua! Sexi geunden, ‘í’, ‘ú’ bihurtuaz unetik unera.

Ezpainak ezpainen sukar zurrupada ez titan. Ezpain amultsuak lekutik atera beharrean, demonio! Eskua, galtza larruzko labur haietan preso zegoen txorira luzatzen nizun eta, esandakoa, lakurantz abiadan abiatu ginen arren ez dakit bideko ze puntutan baina, oholtzatik ez oso urruti, egurra eman genuen eskale gosetuen pare, inora begiratzeko ahalmenik gabe. Iluntzeak itsutu gintuen. Bukatzerako, aiene baten oraindik, Simon and Garfunkel kantari zirela baino ez nintzen ohartzen ‘bridge over troubled water’ kantu ezin aproposagoaren melodiak eta letrak harrapatuak. Asetzerako bukaera gozoa hura, jolin! Eta ordu-artekoa, apoteosikoa.

Han ez ziren esku nahikoak izkina guztiak besarkatzeko; bihurgune guztiak biltzeko. Halako batean hanka zabalik zure sorbalda gihartsuetara igo ninduzun arte eta azpiko galtza eta guzti *motxina* milikatu. Hura hozkirria! Ezin gehiago horretan, kuleroak erreta, jokaldi berean baina buruz behera oraingoan, zuk zurea egiten jarraitzen zenuen bitartean, praka labur estuetako botoiak kolpez erbestera eta zakil-burua edoskitzen jarri nintzaizun gogo biziz. Hola ordu-laurdena; estutu eta jan, arnastu eta irentsi, jaso eta eman. Ondoren parez pare, trabak erauzi eta, postura erosoagoak hartuz emateko... eta eman... eta eman. Emanda gentozenez aurreko estreinaldi gau laburretik, luze jo zuen saioak, haziak sustraietatik ere ateraz, barrenak ere hustuz...ufff?.

Gure buruetan kaiolen hotsek baino, txorien kantek egiten zuten doinu!!

Gurean zutik dirauten zutabeak dira klabeak ezta laztana?! Gardentasuna eta errespetua, pribatizazioaren gainetik. Aukera berdintasuna. Ez dugu gerora, Federico Mocchiaren nobeletara jokatu ezta zergatirik mozorrotu, gizarte honek uneoro egin bezala. Sexua bilakatu da gure plazeren seme-kuttun. Gero tratuak mila eratakoak izan litezke; akordio bat da. Ez txantilo jakin bat. Don't worry, be happy! Eta gaur da atzo hainbeste arduratzen gintuen etorkizuna! Ikasiko dute batzuek bederen, beraien iragana gogoratzean.

Azken gau hura, onean, gurekin bat bizi izan zuten haiek guztiak gogoratuko dutela pentsatu nahi dudana bezala. 'Azken gaua' bataiatu genuen orgia hura, mahairik behar ez zen arren, han eman ziren postura guztiak biltzeko. Ezta santurik egon ere. Nola esango nuke nik; bekatua eta bertutea eskutik hartuta zihoazen banaketa hartan.

Han ez zen ez mahairik ez kartarik baina mus jokoa ematen zuen banaka, binaka, hirunaka bezain launaka egin jokoek: bekainak gora, begiekin keinu, muturrak eta mihiak albo guztietara...han susara ez zegoena, ez zegoen han! Begiratzen zenuen aldera begiratzen zenuela, gogo-sukarra zen nagusi. Geratzen ziren desio sutsuak ernatu ziren. Antsiak itsasoratu lakuaren beraren baimenaz, batera, erdigunearen hondarrean bertan.

Hala nabaritzen nuen nik lau haizetara, zurekin sualdiko hotzikara bakoitzean, begiak 360ºtako jira birak egitera abiatu bakoitzean. Irudiaren irudiak presente ditut:

Eskumarantz, kirtanak pareka irensten dabilen ile-motz lerdana, ohara dagoen katemearen moduan. Arropak eranstea beharrik gabe oraindik txakur-gosez ez tul txikitan. Urrutirago, basa-behorrak eta zaldiak, hauek ere, bizitza oso bat besarkatu nahi dutenen antzera, larru-ereditan, dena oratu ezinean. Bizkortasunean, zehaztasunean baino gehiago; irrintzika galopean.

Ezkerretara, bulkada eta txilio artean, alua goitik behera garbitzen ari zaion bizarduna ipurdirainoko melena duen emeari. Urrunerago basakatuak beraien basaloreak atzamarrekin igurtzika, igurtzi eta igurtzi, begiak itxita bestearen beharrik gabe, beraiei begira kanpai joka dabilzan katarren pare.

Haurrez haur, izterrak ondo zabaldua, ipurmamiak saltoka -zaldunak zaldian hala- azpikoari egurra ematen ari zaion lamia, buruz atzera, aieneak elkarri erauziz. Aurrerago, atzekoz aurrera, ipurtzuloak xurgatzeraino gozatu *undergrounda* hartzen ari den bikotea. Arra, aipatu sirenatxoaren itzala balitza lez mugimendu berdintsuetan, aurrekoaren zotinen erritmora, hasperenak garrasi bihurtu arte.

Atzerantz so berriz, aurrekoz atzerantz begira nagoelako edo, zer ez den ikusten!! Eskuak atorren azpitik edozein dantza zuten posible; *blusetik rockeraino*, *jazzetik* eta *hip-hopetik* pasatuz. Atzamarrak isuri lirdingatsuz jolasean. Elkarren azalen igurtziak eta zakil aluen irristatzeak. Buztanen jaitsi eta jetzi ezinak eta aluen sugar likina. Zakilak kanpai mihiak ziren ezkilatan, eta ezkila puntetan, kilimek hots. Egosaldiak, felazioak, eta larrualdiak -norbaitek bataiatu bezala larrialdiekiko hitz

joko!- nork-nori -nahi, danak batean eta denak berean, larruazal bakar batek batuko balitu lez. Sexuek elkar ulertuko balute lez.

Panoramika itzela, orduko nire buruak gaurko gailuak ez bezala betirako harrapatu eta gordetako. Sexu-usainak oroimenean. Gosearen ajeak diot nik, e mohikano?!

Eta gu hantxe, erdi-erdian, flirtean baino artazuriketan. Lau kornurretara so, burua hontzarenaren pare, zure gainean zamalkatu izanaren kontuak ahaztuta. Bai, txilibitua dilin batekin jartzen zitzaizun berorrekin! Zenbat aldiz korrituko nintzen 3 egunotan?! Sabela kirioek hartuta, zenbat urrumakako sesio?! Elkar milikatuz/elkar militatuz, kontsolagailuak gure nahiak ziren, naturaren sehaskan.

Zuk segi lasai bihotza, nik esango ditut bionak, guk sinesten dugulako maitasunean, askatasunean, adierazpenean eta giltzetan. Baina zeruak irekitzeko giltzetan. Leihoetan hala esan nahi bada! Bakoitza bera izatea, denok bakoitza izateko. Hori bezain sinplea.

Betheleko ´amoranteak´ deitzen genien bikote hura bezala -izenak dagoeneko oroitzapenen ganbaran ezabatu zaizkidan arren- zeintzuk erlojuak modukoak ziren; txikia handiarekin ordukoko frekuentziaz elkartzen zen, gainerako denboran, noranzko berean aske jarraitzen zutelarik maiztasun natural berean.

Ederra ´eklipsea´ deitzen genion beste bikote haren aldean, nortzuk bata bestearen itzalean baino ez ziren ezagutzen!

Aska ditzagun kateak mundu! Gera bedi ama-lurra hamazazpitik hamazortzirako gau berberean. Egin dezagun maitasuna handi, benetako, kondizio bako, uneko, eder...zu bezain eder Antton. Muakkka!

Adurra dario musuari, gezurra dirudien arren garaiotan. Adurra, tupustean sukaldean atzetik ematen zenidan bakoitzeko lakoa. Adurra, bainuontzi-jokoetan bitsarekin bat egiten zuenaren pare. Adurra eskaileretan gora. Adurra taberna zulotan. Adurra gorputzak lehenengoz talka egin eta, Venusen larretan, orbita berri bat asmatu genuenekoaren adinakoa. Lehenengoz ikusi zintudanean sortu irrika egiaztatu bera. Adurra deritzo maitasunak brodatutako sexuaren maindireak!

Ai maitea, denborak ihes egin du, joan da denboran bertan beste nonbait ostatu hartzera, Refferson air plane, Santana zein Joe Cockerren abestiak bezala. Baita gure basafiorak ere beragan. Baina hain zuzen, kantu horien pare jarraitzen du magiak gudan. Bai horixe, nahiz jada ez duzun tulipa belarririk ez nik Irati basoa buru-gain. Nahiz eta ile jausia eta begi eroriak -bestelakorik ez esatearren- diren orain gure orbain marka.

Polita zara Antton, erreala ezin baita itsusia izan hori ulertzen ez dutenentzat salbu. Eta zu baino errealagorik?! Hargatik maite zaitut gero eta gehiago, zure begitsuak betiko anpolai gorriak direlako eta, egunez amesten jarraitzen dugulako urteak dirauten egun haietan biziz.

Zurrunga batean zauden legez -auskalo noren ametsak koloreztatuz- momentua gēure egitea delako gurea, alferrik esna egon ordez.

Gure bizitzei, Jimi Hendrixek Whoostocki eman zion bukaera ematea falta zaio soilik. Ordu arte momentu magikoren bat edo beste bizi nahi nuke ordea. Arnas gabe uzten zaituen horietako bat. Esaniko bat. String Banden saio ahaztezin haren pare kaiman, Kar kar.

Ahal den heinean behintzat gogoratzerik balego?! Gaur ez bada bihar, bihar ez bada etzi, etzi ez bada...

“...buelta erdia emanik loak hartu nau irribarretsu ta kulero barik”.